BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2372

EBAZPENA, 2015eko maiatzaren 19koa, Industriako sailburuordearena, zeinen bidez herri-onurakotzat jotzen baita «Gernika-Gernika Norte Cto.2» izeneko 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoa, Bizkaiko Ajangiz, Gernika-Lumo eta Forua udalderrietan, zuhaitzik gabeko zerrenda handitzeko xedeak.

Erref.: L-8147 ASA/BIZ

Esp.: AT-H-2014-62

AURREKARIAK

1.– 2014ko abenduaren 17an, Iberdrola Distribución Electrica, S.A.U. enpresak (San Adrian etorbidea 48, Bilbao) eskatu zuen gorago zehaztutako lineari onura publikoaren deklarazioa ematea, linea horren zortasuna handitzeak eraginpean hartzen dituen ondasunak eta eskubideak urgentziaz okupatzeko; izan ere, zuhaitzik gabeko zerrenda handitu egin behar dira. Enpresa horrek dokumentazio egokia aurkeztu zuen. 2011ko martxoaren 8ko Ebazpena betetzeko.

2.– Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuaren 10. artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. sozietatearen aipatu eskabidea jendaurrean erakusteko iragarkia argitaratu zen, 2015eko otsailaren 11ko BAOn, 2015eko otsailaren 2ko EHAAn eta 2015ko otsailaren 14ko Deia egunkarian. Iragarkiarekin batera, enpresa horrek desjabetu beharrekotzat jotzen zituen ondasunen eta eskubideen zerrenda argitaratu zen.

3.– 2015eko otsailaren 4an, ofizio bat igorri zien Ajangiz, Gernika-Lumo eta Forua Udalei, udaletxeetako iragarki-oholetan erakusteko proposatutako jarduketari buruzko iragarkia, eta udal horiei eskatu zitzaien, halaber, txosten baten bitartez adierazteko egokitzat jotzen zuten ala ez instalazioa herri-onurakotzat aitortzea.

4.– Horretarako xedatutako jendaurreko erakustaldian, udal horiek ez dute aurkeztu ez baldintzaturik, ez alegazio partikularrik.

OINARRI JURIDIKOAK

1.– Espedientean, arauzko izapideak bete dira; zehazki, honako xedapen hauetan ezarritakoak: 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa; 1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, Argindarra garraiatu, banatu, merkaturatu eta zuzkitzeko jarduerak eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituena; Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Lege Araudia; 282/2002 Dekretua, abenduaren 3koa, Eusko Jaurlaritzarena; Energia eta Meategien zuzendariaren 2011ko martxoaren 8ko Ebazpena, Goi-tentsioko airetiko linea elektrikoak zuhaiztietatik igarotzeko berariazko preskripzioak ezartzen dituena.

2.– Ebazpena Industriako sailburuordeak ematen du, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriari jarraikiz (2013-04-24ko EHAA), eta honako hau

EBAZTEN DU

Herri-onurakotzat jotzea «Gernika-Gernika Norte Cto 2» izeneko 13,2 kV-ko airetiko linearen instalazioa (zortasunik gabeko zerrenda handitzeari dagokionez), honako tarte hauetan:

Adarra	Jatorria (euskarri-zk.)	Bukaera (euskarri-zk.)	Luzera (m)
1. Tartea	ST de Gernika	9001	20
2. Tartea	9011	8101	47
3. Tartea	9001	7002	41
4. Tartea	7002	7003	115
5. Tartea	7003	7004	136
6. Tartea	9007	9008	70
7. Tartea	9008	CTD La Merded-Gernika	17
8. Tartea	9008	9010	106
9. Tartea	9010	9009	44
10. Tartea	9010	9011	77
11. Tartea	9011	9012	54
12. Tartea	9012	501	75
13. Tartea	501	502	67
14. Tartea	9012	9013	68
15. Tartea	9013	2801	48
16. Tartea	9016	601	66
17. Tartea	601	606	245
18. Tartea	606	CTD Landaberde-Forua	39
19. Tartea	9016	9017	51
20. Tartea	9017	9018	35
21. Tartea	9018	9019	66
22. Tartea	9019	9020	41
23. Tartea	9020	701	13
24. Tartea	9020	9021	57
25. Tartea	9021	9022	44
26. Tartea	9022	901	76
27. Tartea	901	902	56
28. Tartea	902	905	358
29. Tartea	905	907	204
30. Tartea	907	908	130
31. Tartea	908	911	393
32. Tartea	911	912	108
33. Tartea	912	801	14
34. Tartea	912	913	126
35. Tartea	913	917	134
36. Tartea	917	919	105
37. Tartea	919	920	68
38. Tartea	920	8004	398
39. Tartea	8004	8006	244
40. Tartea	920	921	39
41. Tartea	921	922	47
42. Tartea	9022	9023	65
43. Tartea	9023	9025	152
44. Tartea	9025	1001	6
45. Tartea	1001	1002	66

Adarra	Jatorria (euskarri-zk.)	Bukaera (euskarri-zk.)	Luzera (m)
46. Tartea	9025	9029	235
47. Tartea	9029	1101	133
48. Tartea	9029	9032	155
49. Tartea	9032	2201	107
50. Tartea	9032	9033	50
51. Tartea	9033	1201	36
52. Tartea	9033	9034	64
53. Tartea	9034	9035	194
54. Tartea	9035	9036	242
55. Tartea	9036	1401	60
56. Tartea	1401	1301	6
57. Tartea	1401	1402	41
58. Tartea	1402	1403	66
59. Tartea	1403	1404	85
60. Tartea	9036	2019	107
61. Tartea	9036	9040	268
62. Tartea	9040	9043	196
63. Tartea	9043	9046	172
64. Tartea	9046	9049	186
65. Tartea	9049	9050	55
66. Tartea	9050	2001	12
67. Tartea	9050	9151	96

Deklarazio horrek berekin dakar –abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera– eraginpeko ondasunak okupatu edo eskubideez jabetu beharra, eta horien okupazioa lehenbailehen egin beharra. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan presaz okupatzeko deklarazioari dagokionez ezartzen diren ondorioak dakartza, 53. artikuluan zehaztutako erregistro-ondorioekin.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, 4/1999 Legean ezarritakoa betez (lege horren bidez, azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 19a.

Industriako sailburuordea,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.